

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak garraio bereziak errazteko neurriak aplikatu ditu

Ayerdik garraio hauetarako bidesarien murrizketa eskatu dio Sustapen Ministerioari, bereziki Euskadi eta Aragoiren arteko korridorean (AP-68)

Ostirala, 2019.eko otsailak 22

Nafarroako Gobernuak, Garapen Ekonomikoko eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako departamentuen bitartez, garraio berezien baldintza ekonomiko eta operatiboak eta bide-segurtasuna hobetzeko neurriak hartu ditu, Enercluster energia eolikoko klusterraren nahiz sektoreko Nafarroako erreferentzia nagusiak bihurtu

diren Siemens Gamesa eta Nordex Windpower enpresen lankidetzaz. Enpresen lehiakortasuna sustatzea da indarrean dauden neurri horien helburua, bereziki Nafarroako sektore eolikoarena, izan ere, 2019an osagaien ekoizpena nabarmen gehitzea aurreikusitua da. Horrekin batera, aukeratutako ibilbideen bide-segurtasuna hobetu nahi da. Ahalik eta ibilbide eta kilometro gehien gauzez eta doako zein ordainpeko autobideetan barna egitea da hautatu den aukera.

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik garraio berezi horietako baten nahiz Foruzaingoak eta Guardia Zibilak aurreikusitako eskolta- autoen funtzionamendua egiaztatzeke Nordex Accionaren Irunberriko lantegira egindako bisitan gogoratu duenez, "Gobernuak garraio berezietarako bidesarien prezioak arautu ditu lehendabiziko aldiz, aurretiaz ezarrita zeuden soberako prezioak nabarmen murriztuz". Neurri hau urtarrilean sartu zen indarrean. Horren harira, Ayerdik gogoratu du, Sustapen Ministerioaren azken hilabeteotan izandako harremanetan, neurria Estatuko autobideetara hedatzeak duen garrantzia nabarmendu dutela. Horrekin batera adierazi du Ministerioa gai horretan lanean hasita dagoela, baina eskaera luzatu dio Estatuko Gobernuari "lana bukatu eta egun dauden bidesarien dextenteko murrizketa ezar dezala, izan ere, Nafarroan lehen gertatzen zen bezalaxe, sobera garestiak dira". Ayerdik Euskadi eta Aragoiren arteko AP-68 korridorean garraio bereziei ezarri ohi zaizkien prezio altuak aipatu ditu, Bilboko Porturantzko zein Aragoirantzko norabideetan, eta Nafarroan sortutako garraio bereziek ibilbide horiek erabiltzen dituztela gogoratu du.

Nafarroan finkatuta dauden Nordex Acciona eta Siemens Gamesa



Foruzaingoaren eskolta-autoa, aerosorgailuetarako palen konboi baten ondoan.

gisako sektore eolikoko enpresa liderren jardueran eta neurri handiko osagaiak fabrikatzen dituzten Industrial Barranquesa, Mecanizados Mekatech eta SAKANA Taldea gisako enpresa laguntzaileen lan-kargan aurreikusita dagoen igoeraren ondorioz, izugarri ugarituko dira garraio bereziak, aurreko urteetako kopuruak bikoiztuz. Garraio bereziak deritze, ezaugarri teknikoengatik nahiz garraiatu beharreko karga zatiezinezagatik, Ibilgailuen Erregelamendu Nagusiaren (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) IX. eranskinean ibilgailu arruntetarako ezarrita dauden gehienezko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei.

Sektore eolikoak ez ezik, metalurgiak garraio bereziak behar izaten ditu tamaina handiko egitura aurrefabrikatuak eramateko, baita obra publikoen sektoreak ere, makineria astuna edo tona-kopuru handiko garabiak garraiatzeko.

Segurtasuna, lehenetsunak

Bide-segurtasunaren arloan, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Departamentuak eskolta-autoen dispositiboa abiarazi berri du. Foruzaingoarekiko nahiz Guardia Zibilarekiko lankidetzan estuan, garraio berezien joan-etorriak errazteko laguntza eta gainbegiratze prozedura hau antolatzeke ekintza-protokoloak finkatu ditu, itxaronaldiak murriztuz eta eskoltarako erabiltzen diren polizia-baliabideak optimizatuz. Oinarrizko zerbitzuak konboiaren aurretik doan polizia-patrula bat da. Operatiboa garraioaren tamaina eta pisuaren zein ibilbidearen arabera da.



Garraio berezia, Irunberrietik abiatzean.

Bestalde, 2018an, baimenak emateaz arduratzen den Barne Zuzendaritza Nagusiak 6.000 garraio berezi inguru kudeatu zituen, Obra Publikoetako Zuzendaritza Nagusiaren alde aurreko eta nahitaezko txostenak bildurik. Kopuru hau dexente gehituko da, arestian adierazi den moduan. Ildo horretan, berrikitan indarrean sartu den beste neurri bat Obra Publikoetako Zuzendaritza Nagusiaren baliabideak gehitzearekin lotuta dago, 80 tonatik gorako pisua edo kamioiaren ardatz bakoitzeko 12 tonatik gorako pisua duten garraioen nahitaezko txostenak azkarrago tramitatzeke, baimena eman baino lehen. Urtero, foru Gobernu Kontserbazio Zerbitzuak 1.300 txosten inguru lantzen ditu, eta % 35etik gora sektore eolikoari dagokio.

Eoliko bost ibilbideak

Aerosorgailuetarako piezak garraiatzeko ibilbiderik ohikoenak Irunberrietik edo Agoiztik abiatu eta Zaragozaraino edo Bilboraino iristen dira, edo Nafarroa zeharkatzen dute, Arabatik Zaragozarantz.

· **Irunberri – Zaragoza** (Mallen, Figueruelaserantz.). NA-150, A-21, AP-15, A-15, AP-15 (noranzko aldaketa Zuastiko ordainlekuaren inguruan), AP-15, A-15, AP-15 (13. irteeraraino, Valtierran), N- 113, N-232, A-68, N-232.

· **Irunberri – Araba** (Galiziarantz eta Bilboko Porturantz). NA-150, A-21, AP-15, A-15, A-10, A-1.

· **Araba - Zaragoza** (Mallen, Figueruelaserantz). A-1, A-10, AP-15, A-15, AP-15 (13. irteeraraino, Valtierran), N-113, N 232, A-68, N-232.

· **Agoitz - Zaragoza** (Mallen, Figueruelaserantz). NA-170, NA-150, kontrako noranzkoko lotura NA-8103rekin, NA-8103, lotura NA-234rekin, NA-234, A-21, AP-15, A-15, AP-15 (noranzko aldaketa Zuastiko ordainlekuaren inguruan), AP-15, A-15, AP-15 (13. irteeraraino, Valtierran), N-113, N-232, A-68, N-232.

· **Agoitz – Galizia** (Errioxan barna). NA-170, NA-150, kontrako noranzkoko lotura NA-8103rekin, NA-8103, lotura NA-234rekin, NA-234, A-21, AP-15, A-15, AP-15 (noranzko aldaketa Zuastiko ordainlekuaren inguruan), AP-15, A-15, AP-15 (13. irteeraraino, Valtierran), N-113, N-232, A-68, NA-160, N-113.

Batez ere gauzez antolatutako joan-etorri hauetan, aerosorgailuen palak, nacelleak (dorrearen goikoa aldean finkatzen den osagaia, palen biraketari eusteko), abatzak (palak finkatzeko egiturak) eta dorreen zatiak garraiatu ohi dira.

Galería de fotos



Ibilgailuetako bat Pirinioetako Autobiara sartzen.



Ezkerretik eskuinera, Accionako manager logistiko Lorenzo Rissotto, Manu Ayerdi, Irunberriko Acciona instalazioetako zuzendari kudeatzaile Pedro Campo, Nordex Acciona ekoizpeneko zuzendari Ana Manjón eta Garapen Ekonomikoko Kabineteko buru Peio Ayerdi.